



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PRENTSA-OHARRA

# BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK ONTZAT EMON DITUE EKONOMIA SUSTAPENeko ETA AZPIEGITURA ETA LURRALDE GARAPENeko SAILEN AURREKONTUAK

- **Ogasun eta Finantzetako Batzordeak 155 zuzenketa-eske parzial eztabaidatu ditu gaur saio bietan.**

*(Bilbon, 2021eko zezeilaren 10ean).* Bizkaiko Batzar Nagusiek 2021eko Aurrekontuen zuzenketa-eske parzialak eztabaidatzeko eta bozkatzeko hirugarren jardunaldia egin dabe gaur. Saio bietan, Ogasun eta Finantzetako Batzordeak 155 zuzenketa-eske landu ditu, Ekonomia Sustapeneko eta Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko sailtako kontuen alderdiren bat aldatzeko. Azkenean, aurrekontu horreek aldaketa barik iritsiko dira osoko bilkurara; izan be, aurreko bi jardunaldietan gertatu zan moduan, Batzarretako Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek atzera bota ditue oposizioaren zuzenketa-eske guztiak.

Ekonomia Sustapeneko sailaren aurrekontua 65 milioi eurokoa izango da 2021ean, eta aurton Aldundiko sail guztien arteko zuzenketa-eske kopuru handiena jaso dau. Batzarretako taldeek 111 zuzenketa-eske aztertu ditue lehenengo saioan (39 Talde Bereziarenak, 55 Elkarrekin Bizkaiarenak eta 17 EH Bildurenak). Bilkuran, Beaz, Crowdfunding Bizkaia, Seed Capital eta Seed Capital Mikro foru-erakundeentzat eta programentzat erreserbatuko zenbateko ekonomikoak onartu dira.

Beste alde batetik, Gizarte Ekintzaren ostean eskuragarri dagon diruari jagokonez bigarren lekuan dagon eta Imanol Pradalesek zuzentzen dauen saileko kontuek (238,3 milioi euro mobiduko ditue guztira), ezelango aldaketa barik igaro dabe 44 zuzenketa-eskeen Batzarretako eztabaidea. Azkenean, atzera bota dira Talde Berezia-PPk aurkeztutako 11 zuzenketa-eskeak, EH Bilduk aurkeztutako 11k eta Elkarrekin Bizkaiak aurkeztutako beste 22ak. Bizkaiko Batzar Nagusiek argi berdea emon deutse Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko sailaren esku dagozan Azpiegiturak, Interbiak eta Sestao Bai merkataritzako soziedadeen aurrekontuei.

## SAIOAK

Bihar eguenean, zezeilaren 11n, saioa, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren aurrekontua aldatzeko erregistrau diran 66 zuzenketa-eskeetan zentrauko da, 9:30ean. Eta hiru ordu geroago (12:30ean), Herri Administrazio eta Erakunde



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Harremanen 78 zuzenketa-eskeak aztertzeko txandea iritsiko da. Barikuan, zezeilaren 12an, Bizkaiko Batzarrek saio bat programatu dabe 09:30ean, Garraio eta Mugikortasun saileko 28 zuzenketa-eskeak eztabaidatzeko. Eta astelehenean, zezeilaren 15ean, zuzenketa-eske parzialen eztabaidea Ogasun eta Finantzetako sailagaz bukatuko da. Saio horretan 27 zuzenketa-eske bozkatuko dira.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

# LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA DAN EL VISTO BUENO A LOS PRESUPUESTOS DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y DE INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL

- **La Comisión de Hacienda y Finanzas ha debatido hoy en dos sesiones un total de 155 enmiendas parciales a las cuentas de 2021.**

(Bilbao, a 10 de febrero de 2021). Las Juntas Generales de Bizkaia han celebrado hoy su tercera jornada de debate y votación de las enmiendas parciales a los Presupuestos de Bizkaia de 2021. En dos sesiones, la Comisión de Hacienda y Finanzas ha tratado un total 155 enmiendas que pretendían modificar algún aspecto de las cuentas de los departamentos de Promoción Económica, y de Infraestructuras y Desarrollo Territorial. Al final dichas cuentas llegarán al pleno sin modificaciones ya que, como ya sucediera en las dos jornadas anteriores, los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han desestimado todas las enmiendas de la oposición.

El presupuesto de Promoción Económica, que se elevará a 65 millones de euros en 2021, ha recibido este año el mayor volumen de enmiendas de todos los departamentos forales. Los grupos junteros han tratado en la primera sesión del día un total de 111 enmiendas (39 del Grupo Mixto; 55 de Elkarrekin Bizkaia; y 17 de EH Bildu). En la sesión se han aprobado las cuantías económicas reservadas para los distintos programas y los entes forales Beaz, Crowdfunding Bizkaia, Seed Capital y Seed Capital Micro.

Por su parte, las cuentas del área que dirige Imanol Pradales, las segundas más cuantiosas del disponible departamental tras Acción Social, que moverán un montante global de 238,3 millones de euros, han pasado también el trámite parlamentario de debate de sus 44 enmiendas sin recogerse ninguna modificación. Finalmente se han rechazado las 11 enmiendas presentadas por el grupo Mixto-PPB, las 11 de EH Bildu, y otras 22 que había registrado Elkarrekin Bizkaia. La Cámara vizcaína ha dado luz verde a los presupuestos de las sociedades mercantiles que dependen del departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, como son Azpiegiturak, Interbiak y Sestao Bai.

## PRÓXIMAS COMISIONES



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Mañana **jueves, 11 de febrero**, las dos sesiones previstas debatirán, a partir de las 9:30 horas, las 65 enmiendas del presupuesto del departamento de Euskera, Cultura y Deporte, y tres horas más tarde (12.30) las 79 enmiendas de Administración Pública y Relaciones Institucionales. El **viernes 12**, la Cámara vizcaína ha programado una sesión, a las 9.30, para debatir las 28 enmiendas de Transportes y Movilidad. Y el **lunes 15**, el debate de las enmiendas parciales concluirá con el presupuesto de Hacienda y Finanzas, en la que se votarán 27 enmiendas parciales, y otras 26 al texto Articulado.